

1. KOKAPENA

Aurrekontua, bereziki herri partaidetzarako bitartekoen bidez herritarrek zehaztu dituzten lehentasunak bideratzeko tresna nagusizat dugu. Izenburuak berak dion bezala, urtean zehar Udalak izango dituen sarrerak zein gastuak egokitzen dituen araua da.

Legealdiko bigarren urtean sartu garenez, dagoeneko iazko kurtsoan onartutako aurrekontua kudeatzen ari gara eta iaz ez bezala aurten esperiatzia dugu, beraz iazko hutsegiteak saiaturako gara zuzentzen eta indarguneak azpimarratzen. Esandakoaren harira, eskuartean duzuen dokumentuan proposatzen dizkizuegun aurrekontuen oinarri politikoak, ildo nagusiak edota lau urtera begirako norabide edo herri proiektioa irakurri dezakezue; etorkizunerako politika, miopia politikoaren ordean, makroproiektuak albo batera utziz, herritarrekin batera herria eraikiz.

Bestalde, herri partaidetzaz osatutako aurrekontua garatzeko norabidean, beste urrats bat emateko baliatuko dugu aurtengo aurrekontua. 2012ko amiaieran ekin diogu bide horri. Iaz urratsak eman bagenituen, aurten eskaileran gora maila bat igotzeko aukera izan behar dugu. Aurrekontu partehartzailearen garapena bukaerarik izan ezin duen prozesu progresibo bat bezala ikusi behar bait dugu.

Hau guztia ordea, azken hamarkadetan herri honetan ezagutu dugun egoera ekonomikorik kaxkarrenaren erdian burutu beharko dugu. Beraz, honako elementu hauek kontutan hartu beharko ditugu:

- Madriletik inposatu nahi diguten egonkortasun legeak eta sarreren beherakadak, hurrengo urte luzeetarako administrazio eta politika.
- Publikoen eraldaketa eragin nahi dute. Hori da beren helburu nagusia. Administrazio publikoaren doiketa, multinazional eta entrepresa handien interesak lehenetsiz.
- Argi izan behar dugu, krisitik atera edo ez, egonkortasun legearen helburua “bankuei ordaintzen jarraitzea” den neurrian, hau ez dela ez epe motz edota ertaineko arazoa. Epe luzekoa baizik.
- Beraz, guk ere horren arabera aldaketa egin behar dugu, egoera berrian kokatuz eta zer egin eta proposatu nahi dugun ondo zehaztuz.
- Orain artean izan dena baina diru gutxiago izango da.

- Horrez ez du esan nahi gauza gutxiago eta okerragoak soilik egin ahalko dugunik. Beste lan estilo eta balio batzuk martxan jartzeko ordua da.

UDALAREN ZORRA

Préstamo Kutxa.....	7.439.089,93 €
Préstamo Caja Rural Navarra.....	228.800,00 €
FFFM 2009	302.552,20 €

TOTALA 7.970.442,13 €.

2. AURREKONTU PARTE HARTZAILEA

Aldarrikatzen ari garen errotiko aldaketa eta lan estilo desberdinak, erreferentzia nagusi bat baldin ba du, hori, herriaren eguneroko erabakietan herritarren parte hartzea bultzatzearena da.

Eman ditugu urratsak norabide horretan. Ez da nahikoa. Lan txukuna egin baldin bada ere -Bagararen laguntzarekin-, sarritan esaten dugun moduan, herritarren parte-hartze-erabakitze prozesuak, ibilbide dinamikoa du, kultura politika bati lotuta, herritarren eta politekoen lan dinamikan ustaturik, naturaltasunez eta normaltasunez. Bai, onartzen dugu modu puntual baten –epe eta gai zehatz bati lotuta- parte hartze prozesu baten eraginkortasuna, hala ere, esandakoari inportantzia kendu gabe, harantzago joan behar dugu, parte hartze dinamika prozesuetan inbertituz, ikasiz eta gurea eginez.

Ibilbide dinamikoa izanik, datozen urtetan parte hartzearen eremuan eman behar ditugun urratsak hausnartu eta sakondu behar ditugu.

Hau ez da aurrekontuari soilik dagokion helburua. Herri partehartzailearen aldeko lana haratago bait doa. Baina zinez sinisten dugu, udalean urtean hartzen diren erabaki politikorik garrantzitsuena izanik, aurrekontuaren (edo gutxienik atal batzuen) inguruko erabakiak, ahalik eta herritar gehienen partehartzearekin hartzea beharrezkoa da.

Aurtena begira ba dago kezkatu behar gaituen beste elementu bat. Egoera ekonomikoa ikusita, diru gutxi edo oso gutxi egongo denez **“ze demontre” eztabaidatu** behar dugunaren inguruko eztabaidak ireki dira gure artean. Berriz errepikatuko dugu: Inoiz baino beharrezkoagoa da herritarrei dagoen egoeraren berri zuzenena iritsiaraztea eta egin behar dena elkarrekin erabakitzea. Aurrekontu parte hartzaileen dinamikak atal ezberdinak ditu eta denak garatu daitezke, atal batzuetarako diru gutxi badugu ere.

- **“Kontuak garbi”** azaltzeko dugun konpromisoaren baitan, herritarrei burujabetza eza eta egungo sistema kapitalistaren ondorioak zeintzuk diren azaldu behar diegu: bandoak, auzo ta herri batzarrak, agerraldiak, eragile guztiekin bilerak....
- **Gure jarrera ezin da izan: “ez dago dirurik eta ezin da egin”.** Aurten ezezik, hurrengo urteetan ere diru arazo larriak izango dira Euskal Herrian beste bide bati ekiten ez badiogu. Ezinbestekoa da herritarrekin eta eragileekin egonkortasun legearen ondorioak ondo azaltzea eta sarreran aipatu ditugun aldaketen beharrak ere azaltzen hastea. **Gu, Bildu, dauden baliabideen antolaketa eta kudeaketa desberdin baten bidez, herritarren lehentasunei eta bizi dugun egoerari buelta emateko gaude. Egin dezakegula sinesten dugu eta egingo dugu.**
- Egoera honen jakitun izanik, lehen urrats gisa BAGARArekin adostuko dugun parte hartze lan dinamika.

3. AURREKONTUAREN EDUKIA: ALDAKETAREN NORABIDEAN

- Bildu edo EHBilduk proiektu politiko nazionala eta hegoalderako planteamendu zehatza du. Gure helburu nagusia burujabetza eta eraldaketa sozialaren bidean urratsak ematea da, eta **urrats horietako asko nazio eraikuntzaren baitan kokatzen dira**. Gure herria zatitua eta ukatua dago. Gure herria berreraikitzen ari garen honetan gure hizkuntza babestu behar dugu, gure nazio instituzioak sortu behar ditugu, lurralde zatiketa gainditu eta lurraldeen arteko harremana landu nahi dugu, gure herriaren garapen sozioekonomikoa bultzatu nahi dugu,... nazio proiektu ugari daude norabide horietan eta horiek bultzatzea ezinbestekoa da.
- Guk, **instituzioetatik** eta gure irakurketa partzial eta lokalistatik haratago nazio eraikuntzaren aldeko apustua egin beharra daukagu. **Euskal Herrian inbertitu behar dugu**, gure proiektuak, Euskal Herria bera, indartu eta aurrera egiteko.
- Hasieran esan dugu une eta aurrekontu honen garrantzia zein den. Orain aldaketa hori zein norabideetan egin beharko dugun azpimarratzera gatoz, hori bai, herri bakoitzak -gurean Atxabalta- bere ezaugarriak era egoera ekonomikoa dituela kontutan hartuz .
- Aretxabaletako lehentasunak zeintzuk diren argi azalduko dugu 2013ko aurrekontuetan. Horiek aldaketa politiko eta soziala ondo ordezkatzeko duen/ten apustuak izan behar dute. Herrietatik, Atxabaltatik, Euskal Herrira urratsak emateko garaia da eta!
- Hemen aipatzen diren apustu hauetara begirako inbertsioak egin behar ditugu herrietatik, baita Aretxabaletatik ere; **gure herritik Euskal Herriari egindako ekarpen gisa ulertuta**.

3.1 PARTEHARTZEA

- Betidanik bultzatu izan dira auzo batzarrak, talde kultural eta sozialen bilera horizontalak, norbanakoengandik zein kolektiboengandik sortutako ekimenak... Betidanik bultzatu izan dira, herritar edo herri eragileei esker. Batzuentzat aurpegi zuriketa bada, Atxabaltako Bildurentzat, herria eraikitzeke oinarri-oinarrizko tresna da. Baina parte-hartzea, norbere herria eraikitzeke lanabes ederra izateaz gain, banakoaren izaeraren eraikuntzan ezinbesteko ezaugarria da.

Ondokoaren errekonozimendutik eta berdintasunetik abiatzen den eraikuntza kolektiboa eta pertsonala. Gatazkak ikasketa prozesu bihurtzen ditu parte-hartzeak. Helburua argi izanik, helmugari baino gehiago, heltzeko bideari jartzen dio arreta. Jendearen ekarpenekin osatzen eta sortzen doan bideari, alegia. Bide honek sortzailea eta erakargarria behar du izan. Errealitatearekin bat datorrena eta inklusiboa. Elkarrengandik eta elkarrenganako ulermenerako, eztabaidarako eta elkarriketarako espazio erosoak eskaini beharko lituzke diseinatuko dugun parte-hartze prozesua. Baina, bereziki, jendearen buru eta bihotzetatik ateratzen diren ondorioetan sinistea da ezinbesteko pieza. Pieza horiekin guztiekin soilik osa baitaiteke gure puzzlea, gure herria Atxabaltea.

- Atxabaltarren parte hartzeko ohiturak, komunikatzeko kodeak, norbere beharrak eta behar kolektiboak... denak aztertuz eta arakaturik, **prozesuaren beraren diseinua marrazteko pistak** aterako ditugu. Partaideen jakintza eta nahia bultzatzeaz gain, komunikaziorako eta elkarlanerako mekanismoak **martxan jartzea eta hauek eraginkorrak izatea izango dugu erronka 2013.urtean.**
- Gauza jakina da, sistema kapitalistaren barruan, emakumeak, etorri berriak, haurrak, adinekoak, gazteak... sektore prekarizatuak direla. Horrenbestez, multzo hauen barnean kokatzen diren partaideengan arreta berezia jartzea eta hauen parte-hartzea sustatzea gogoan izan beharko dugu.
- Ez gara gehiago luzatuko; partehartze dinamika aurrekontuan txertatua izango da 2013.urtean partida handituz. Aurrekontu partehartzailea burutzeak duen kostua barnebilduko da partida honen baitan.
- Proposatzen dugun partida handia izango ez bada ere, gure konpromiso nagusietako bat denez, berezitua eta zehaztua izango da.
- 2013. urtean aurreikusten diren gai jakin batzuen aurrean herritarren parte hartzea bultzatzea garrantzitsua da; honako hauek dira: Kuartela, Basotxo, aurrekontuak eta hiri hondakinen kudeaketa, eta noski, baztertu gabe mahai gainean jarri ahal diren beste gai batzuk.
- **HITZARMENAK:** Esandakoaren harira herriko zein kanpoko talde edo instituzioekin elkarlana samurtzea, adostea eta bultzatzea ezinbestekotzat jotzen ditugu; iazko politikari jarraituz –Aretxarte, Eskoriatzako Udalarekin, Aretxabaletako Lanbide

Eskolakorekin eta Kuku-Mikurekin sinatu genituen hitzarmenak- aurten ere HUEZlrekin hitzarmena sinatuko dugu (ikus eranskina).

- **Bi diru partidetan banaturik, guztira: 28.000 euro. Bertan hiri honakinen inguruko komunikazioa sartuta dago (9.000 eurokoa aurreikusten da)**

3.2 NAZIO ERAIKUNTZA

3.2.1 Nazio eraikuntzarako proiektuak

Aurrekontuetan, “Nazio Eraikuntzarako Proiektuetarako” izen burupean partida bat sortzea proposatzen dugu. Partida honetan, honako apustu hauetarako diru-laguntzak bideratzea ezinbestekoa ikusten dugu :

3.2.1.1 Udalbiltza, nazio instituzioa:

- Jakina denez, Udalbiltzaren berrantolaketa martxan da dagoeneko. Lege bitarteko guztiekin, Udalbiltzak (beste edozein organo supramunizipal ofizialek bezala) udaletatik datozkion ekarpenak jasotzeko aukera du.
- Iaz bezala, Udalbiltza apustu sendo bilakatze aldera, honako taula honetako kopuruak proposatzen ditugu:

⇒ 0-500 biztanle arte, urtean 1000 euro

⇒ 500-1000 biztanle, urtean 2000 euro

⇒ 1000-2500 biztanle, urtean 3000 euro

⇒ 2500-5000 biztanle, urtean 6000 euro

5000-10000 biztanle, urtean 10.000 euro -Aretxabaletari dagokiona-

⇒ 10000-25000 biztanle, urtean 15.000 euro

⇒ 25000-50000 biztanle, urtean 25000 euro

⇒ 50000-100000 biztanle, urtean 35.000 euro

⇒ 100.000 tik gora, urtean 50.000 euro

Nazio eraikuntzan eta herri honen zutabeak eraikitzeko ezinbestekoak diren honako eragile hauek ere bultzatu beharra ikusten dugu:

- **Gaindegia:** Euskal Herriko Behatoki sozio ekonomikoa. Proposatzen dugun diru kopurua: **1000 euro**
- **Euskal Memoria:** proposatzen dugun diru kopurua: **500 euro**

3.3 EUSKARA

- Transmisio, motibazio eta erabilera sustatzeko inizatiba eta politikekin jarraitzea, batez ere 2013. urtean **gazteei begira**.
- Euskara Batzorde edo Mahai eraginkorra bultzatu euskalgintzako eragile guztiekin.
- Euskalgintzako eragileekin diru-laguntza politika argia eta elkarlana sustatu herriko taldeekin.
- Baldintzak dituzten herriak UEMA-n sartzea eta honen ildoak garatzea ezinbestekoa izango da.
- Euskalgintzako eragileekin batera, herriz herri euskalduntzeko plangintza estrategikoa burutuko dugu. Zentzu horretan, herriko euskara elkarteak (Loramendik) duen sarearen potentziala aprobeztatu eta sustatu. Era berean, Udal Administrazioa euskalduntzeko sindikatu eta langileekin adostutako oinarrizko plangintzak garatuko ditugu. Jadanik euskara normalkuntza plana martxan daukagu gure Udaletxean 2011. urtetik (ikus eranskina, "Aretxabaletako Udalaren Hizkuntza Politika")) eta guztion adostasunarekin ekin genion bideari jarraitzea logikoa eta ezinbestekoa dela iruditzen zaigu.
- Jarraipen batzorde baten pertinentzia, planari jarraipena egin ahal izateko. Eragileek ere parte hartu beharko lukete euskara arloan.
- Euskalgintzako eragileei laguntzen jarraitzea, lan osagarri egokia egiten baita
- Komunikazioetan hizkuntza maila erraztu eta ulergarriago egitea.
- Udalak egiten dituen ekitaldi publikoetan euskarari lehentasuna ematea : oharretan, bandoetan, kanpo- zein barne-komunikazioan... ere, gaztelera eta euskara maila berean agertzen dira askotan. Horregatik, euskara lehenetsiko dugu
- Merkataritzan: errotuluetako asko gaztelera hutsean daude. Eskrupuloak galdu egin dira eta.

- Kultur ekitaldietan eta zinean euskararen orain 20 urte geunden bezala gaude gai honetan. presentzia handitzeko saiakerak egitea.Hilean behintzat, lau filmetik 1 euskaraz izateko konpromizua hartu du Udalak.
- Kirol arloan, kirol etxeari jarraipena egin behar zaio, kirol elkarteei ... Oso arlo inportantetzat jotzen da, eta hemen ere, administrazio eta eragileen arteko lankidetzaz garrantzitsua da.
- **Gipuzkoako Foru Aldundiak 2012.urtean** hartu zituen euskararen hizkuntza normalkuntzaren aldeko konpromizua eta urratsekin bat eginez, gu be, **gure kontratazioetan euskararen eskakizuna bermatuko** dugu.

Euskara Departamenduaren aurrekontuak 2013rako proposamena.

Arloa	Helburua	Proiektuak	Aurreikusp.
Transmisioa	Hizkuntz etorkinak integratu, hizkuntza indartuz	Euskaraz Jolasten	12.000
Transmisioa	Ahozko erabilera indartu	Ahozkotasuna lantzeko egitasmoa	6.500
Transmisioa	Guraso gazte euskaldunak aktibatu	"Zer ikusi hura egin" Gurasoei eskainitako saio monografikoa.	400
Transmisioa	Gurasoak eta gazteak aktibatu	Gurasoak irakasleen norabide berean (HH, LH, DBH)	2.500
Transmisioa	Guraso gazte euskaldunak aktibatu	Zorionak	400
Transmisioa	Guraso gazte euskaldunak aktibatu	Zorionak ama izango zara: DVDA	640
Transmisioa	Guraso gazte euskaldunak aktibatu	Kantu eta Jolasen DVDA	0
Transmisioa	Herritarrak aktibatu euskarazko produktuak eros ditzaten	Euskal Produktuen katalogoa	500
Transmisioa	Guraso gazte euskaldunak aktibatu	Ereduak eskaini herritarrei: Geuria	150
Transmisioa	Euskalkia indartu	Ahotsak.com	3.500
Gazteak	Erabilera, jarrerak eta motibazioan eragin	Kuadrillategi	12.000
Gazteak	Erabilera, jarrerak eta motibazioan eragin	Zergatik ez? Soziolinguistika saioak DBHn	1.500
Gazteak	Erabilera, jarrerak eta motibazioan eragin	Irakurzaletasuna sustatzeko saioak: Gaztezulo	811
Gazteak	Erabilera, jarrerak eta motibazioan eragin	Telp: Euskararen erabilera handitzeko gazte erreferenteak format.	2.000
Gazteak	Erabilera, jarrerak eta motibazioan eragin	Euskararen eguna: Bakarriketak, antzerkia, lehiaketak	5.780
		herriko eragileekin elkarlanean	
Sentsibilizazioa	Integrazioa landu, hizkuntza bitarteko izanik	Etorri berrien harrerarako egitasmoa: Auzoko	8.000
Sentsibilizazioa	Eukaraz bizitzeko aukerak eman eta bultzatu	Ereduak herritarrei: Errenta kanpaina, Gida baimena eusk	500
Sentsibilizazioa	Herritar euskaldunak aktibatu	Spotak zinean, Goienkarian eta Goitbn/Irrati tarreak	2.450
Sentsibilizazioa	Herritar euskaldunak aktibatu	Euspot II.	3.500
Sentsibilizazioa	Herritar euskaldunak aktibatu	Korrika 2013	600
Arlo sozioekonomikoa	Herritar euskaldunak aktibatu	Merkataritza eta hostalaritza: Eta zuk nola egiten duzu?	3.000
Dirulaguntzak	Laguntzak eman eta motibazioan eragin	Udako Ikastaroak; barneteg, trinkoak, euskaltegian talderik ez	500
Dirulaguntzak	Laguntzak eman eta motibazioan eragin	Errotuluak, irudi korp, web-blog, tresna informatikoak.	1.000
Dirulaguntzak	Euskalgintza indartu	Badihardugu Eusk. Elkartea	600
Dirulaguntzak	Euskalgintza indartu	Ikastolen jaiak	750
Dirulaguntzak	Euskalgintza indartu	Kontseilua, Behatokia	1000
Dirulaguntzak	Euskalgintza indartu	Loramendi Euskara Elkartearen dirulaguntza	30.000
Euskalduntze-alfabetatzea	Euskalduntze alfabetatzea bultzatu	Euskaltegiari aportazioa	99.397,94
Komunikabideak	Bertako komunikabideak indartu	Argia-Berria urtekariak	1000
Komunikabideak	Bertako komunikabideak indartu	Goiena	55.328
GUZTIRA			244.307

3.4 KULTURA

- Krisi gairaietan kulturaren eremua izaten da galtzen ateratzen den eremua. Herri kultura eta euskal kultura garatzearen aldeko apustua egiten dugu.
- Herriko kultura mailako eragileekin elkarlana bultzatu eta garatuaz. Behingoz taldetxo osatu da eta badali, "motel" baina badabil. **Aurtengo helburua talde hori egonkortzea izango da.**
- Egoera ekonomiko larriari, **sormenaren** bitartez aurre egin behar diogu. Atxabalterrengandik sortutako inizatibak bultzatuko ditugu.
- Kultura, kultur jarduerak kalera ateratzearen beharra ere somatzen dugu; kaleak eta plazak animatzen eta kulturaz janzen ditugun einean **"herriak bizirik"** aldarrikapenaren aldeko urrats bat ematen ari gara.
- Kultur eskaintza anitza eta erakargarria.
- Aurten zine digitala izango dugu inbertsiorik egin gabe.
- Parte hartze prozesuan irtendakoari helduz, Gabonetako ospakizunen inguruko hausnarketa. Olentzero jaiarekin hasiko gara, bere antolaketari buruzko mahai bat osatuko dugularik.
- Huezirekin harremanetan jarri eta elkarlanerako zubi berriak eraiki.
- Txapel txin jaia udaleko jaien aurrekontuetan integratu.
- 2013. urtean- iazko politikari jarraituz-, jaietan taldeak kontratatzerakoan bi irizpide nagusi izango ditugu: **emakumearen presentzia eta euskara nagusi izan daitezela.**
- **Aurten arkupeko kudeaketa** Udalaren esku dago; hau izango da kultur arloko beste erronka nagusienetariko bat.

KONZEPTOA	ZENBATEKOA	%BEZ	BEZ	GUZTIRA
GASTOAK				
ANTZERKIA	22.000€	21,00	4.620€	26.620,00€
ERAKUSKETAK	3.000€	21,00	630,00€	3.630,00€
MUSIKA	10.000€	21,00	2.100,00€	12.100,00€
HAUR IKUSKISUNAK	12.000€	21,00	2.520,00€	14.520,00€
ZINEA	36.000,00€?	21,00	7.560,00€	43.560,00€
BESTE BATZUK (Hitzaldiak Diaporamak...)	2.000€	21,00	420,00€	2.420,00€
INPRENTA	19.602,00€	21,00	4.116,42€	23.718,42€
IKASTAROAK	12.100,00€	21,00	2.541,00€	14.641,00€
DANATEK	34.572,12 ?	21,00	7.260,15€	41.832,27€
KALE ANIMAZIOA	14.520,00€?	21,00	3.049,20	17.569,20€
GUZTIRA				
INBERTSIOAK				
MEGAFONIA/MUSIKA EKIPOA	2000			
GUZTIRA				

3.4 1 Liburutegia

- Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionaleko lan talde batek Euskadiko Autonomia Erkidegoko irakurketa publikoaren mapa egin zuen 2007 urtean. Bertan esaten da 5.000 eta 10.000 biztanle arteko herri bateko liburutegiak eskeini behar dituen zerbitzuak eta nola eskeini behar diren. Gaur egunean Euskadin daukagun tresna bakarra hau da. Lehen Eusko Jaurlaritzako kulturako web orrian zegoen, baina dagoeneko kenduta daukate. Interesik baduzue Liburutegian CD-Rom batean daukagu.
- Aipatzen da zenbat liburu egon behar diren (12.500 eta 30.000 bitartean). 2011 urte amaieran Aretxabaletako Liburutegian 16.110 dokumentu inguru zeuden. Eskuratzeak berriz mapan 1.250 eta 2.500 artean behar dutela dio; 2011 ean 1152 material berri sartu genituen, aurten 597 sartu ditugu oraingoz. Oraindik ez dakigu Jaurlaritzak zenbat diru emango duen liburutarako 2012 urtean, 2011 n 3977 € jaso genituen; dena dela datorren urterako 16.000 € ko partida onartzea proposatzen dugu.
- Informatikarako Jaurlaritzak dirulaguntzak ematen ditu, 2011 n 776 €ko gastua egin genuen eta Jaurlaritzak 698 € ko dirulaguntza eman zigun . Honetarako ez dago Liburutegiko partidarik, Udaleko informatikako partida orokor bat erabiltzen da. 2012 rako 2072 € ko aurrekontua aurkeztu dugu bi ordenagailu erosteko asmoz. Urtarrilera arte ez dugu jakingo zenbateko laguntza emango diguten; momentuz ez ditugu erosi ordenagailuok. 2013 rako ez dugu oraingoz ezer pentsatu baina dauzkagun ordenagailuek 5 urte egingo dituzte dagoeneko eta zerbait apurtzen bada erosi beharko da.
- Langileei dagokionez irakurketa publikoko mapan 2 eta 4 bitartean izan behar direla aipatzen da.. Liburutegiak liburuzain arduradun bat, haur liburutegirako arduradun bat eta laguntzaile bat behar du gutxienik. Arduradunak eramango luke antolaketa orokorra eta haur liburutegiko langileak bere sailari dagokion gai guztia.
- Animazioari dagokionez 3.000 € ko partida daukagu 2012 rako eta Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza 2012 an 1.234 € koa izan da. Diru honekin aurten Biblioporrak irakurketa gida egin dugu, ipuin kontalari bat ekarriko dugu (bi saio) azaroaren 8 an, orain Neguko gida egiten hasi gara eta irakur puntuak egingo ditugu abendurako (markapaginas liburutegiko egutegiarekin). Dirua geratzen bada beste ipuin kontalari bat ekarriko dugu. Ama-lur enpresak antolatu izan ditu ipuin kontalariak liburutegian; hasieran hilero bi saio izaten ziren eta aurten saio bat bakarrik eta ez hilabete guztietan. Partida hau 6000 € ra igotzea proposatzen dugu Ama-Lur ek egiten zituen ekitaldiak guk antolatzeko.

- Altzariei dagokionez altzarien zainketarako zegoen partida bat kendu zenuten eta orain ezin dugu Txiki-txokoan apurtu diren bi aulki ordezkatu. Aurten ikusentzunezkoak ipintzeko apal berri batzuk erosi nahi genituen, baina horretarako dirurik ez zegoenez erosi gabe geratu gara. Proposatzen dugu partida hori berriz ipintzea 2013 rako. 2000 € beharko ditugu apalak eta txiki txokoan apurtu diren bi aulkiak erosteko.

Operazio arruntak:

- Pertsonala
- Zerbitzu eta ohizko gastuak:
- Liburuak eta aldizkariak erosi (Subentzioa du) 16.000 €
- Animazioa (Subentzioa du).....6.000 €
- Bulego materiala1.000 €
- Elkarteen kuotak eta matrikulak..... 300 €
- Dietak300 €

Kapital operazioak (inbertsioak):

- Informatika.....? €

Jaurlaritzaren dirulaquntzak:

- Liburu eta aldizkariak erosteko(2011 n).....3.977 €
- Animaziorako(2012 an).....1.234 €
- Teknologia berriak(2011 n)..... 698 €

Beste sarrerak:

- Fotokopiak, inprimaketak.....

3.5 ERALDAKETA SOZIALA

3.5.1 Gizarte eta Enplegu arloa:

- Bizi ditugun garai latzak ikusita, eremu honetan esfortzu handia egitea ezinbestekoa da; jakin badakigu Udal batek dauzkan mugak eta trabak - PPren dekretazoarekin, eta batez ere hildo politikoarekin eremu honetan Udalek zeuzkaten lan eremua murriztu baita- hala ere, ezkerretik, indar metaketaren aldeko urrats politikoak emanez eta Euskal Herria eta bide batez Atxabalta dagoen zulo ekonomikotik irtetzea lortuko dugu; aldarrikatzen dugun eraldaketa politikoa eraikitzeko, tokian tokiko eman behar ditugun urratsak nahiz eta txikiak izan eman behar ditugu.
- Udalek dituzten eskumenak kontutan hartu behar ditugu, bikoizketak ekidinaz eta dagokion insituzioak dagokion ardurak beteaz.
- Pribatizazioari aurre egin behar diogu, “kanporatuak” dauden zerbitzuak berriro udalera ekarriaz.
- Ogasun eta dirulaguntza politikaren bidez, gutxien dutenen oinarritzko eskubideak bermatu behar ditugu.
- Gizarteko eremurik ahulenak diren heinean, adin nagusi, emakume, etorkin eta umeen eskubide sozialak bermatzen saiatu behar dugu.
- Mankomuniate mailan egiten ari garen Enplegu Planean parte hartzen ari gara eta berau ahalbideratuko dugu 2013. urtean. Gurea, propioa ere prestatzen ari gara.
- **Partida berri bat sartu dugu: “enplegua sustatzeko kontratazioak”, 19.688,14 euro**

- Lau partida nagusi. / 2013. urterako aurrekontu proposamena:([binkulanteak dira](#))

1. **GARAPEN EKONO. ESKUALDE AGENTZIA: 24.301,11 euro**
 2. **DIRULAGUNTZA ARRUNTA ENPRESA EKIMNERAKO: 10.000 euro**
 3. **KAPITAL DITULAGUNTZA ENPRESA EKIMENERAKO: 20.000 euro.**
 4. **AUTOENPLEGUA-LANERAKO PRESTAKUNTZA IKASTAROA: 30.000 euro**
 5. **ENPLEGUA SUSTATZEKO KONTRATAZIOA: 19. 688,14 euro**
 6. **KONTRATAZIOEN ASEGRU SOZIALAK: 6.447,87 euro**
 7. **Debagoieinako mankomunitateari capital transeferentzia lanak: 654,38 euro**
- GUZTIRA: 111.091,50 euro**

3.5.2 Etxebizitza arloa:

- Etxe kaleratzeen gai larriaren aurrean, egin ditugun proposamenak martxan jarri –protokoloa-.(ikus eranskina).
- Gainerakoan, inoiz baino gehiago, etxebizitza berriak eraikitzean baino, zaharrak birgaitzean eta etxebizitza hutsak alokairura ateratzean izan behar dugu burua. Zentzu horretan **Ordenantza Fiskaletan sartu ditugun aldekatetak** etxebizitza huts gehiago alokairuan jarriko direla uste dugu.
- Eraikitzerakoan (ahoskalo noiz ?), alokairurako etxebizitza sozialei emango diegu lehentasuna.
- Etxebizitzaren alde, herritarren antolaketa bultzatuko dugu, kooperatibak edo beste modu baten egiteko erraztasuna emanaz.
- **Stop desahucios-ek proposartutako ekimanarekin bat eginez, etxekaleratzeak paraitzen duten atxabaltarrei lagundu ahal izateko partida berri bat sartu izan dugu: 1.370 eurokoa (0.20 zentimo biztanle bakoitzeko)**

3.5.3 Berdintasun arloa:

- Honako helburu hauek betetzeko ere diru partidak jarri ditugu aurrekontuetan. Arlo bakarraren ikuspuntutik baino, arlo guztiak ikutuko dituen esparru bezala ulertu dugu.
- Berdintasun Batzordetik hasitako bideari jarraipena emango diogu eta berau kontsolidatu beharra daukagu 2013. urtean.
- Berdintasun plana eginda daukagu -Daitekerekin- eta gainontzeko herritar eta eragile zein instituzio sozialekin plan horien garapena izango da gure erronka nagusia.
- 2013. urtean genero ikuspuntua ere txertatu beharra daukagu Udalak egiten dituen kontratazioetan,- Daitekeko orientatzailea, Maria, arduratuko da.-
- Betiko eta iazko ekimenen berriekin jarraitzeko konpromizua hartzen dugu: betiko “Martxoak 8”, “Martxoak 8...egunero izan dadila”;
- **Genero eta berdintasun ikuspuntua Atxabaltako Udalak hartzen dituen erabakietan eta kontratizioetan jasotzea eta isladetzea izango da 2013. urtean erronka nagusienetariko bat.**
- **Bailarako emakume taldeen artean elkar-lana sustatu eta bermatzea izango da 2013. urteko erronka berri bat.**
- Ekimen berriak: 2013. urtean emakume txirrindularitza bira eta Atxabaltako herriko sarreran zein ireteeran kartelak mezu honekin jarriko dira: “Atxabaltak ez du indarkeria/biolentzia matxistarik onartzen” (adostu dezakegu mezua).
- Berdintasun plana: Daitekeren aholkularitzaren kostea, **15.500 euro.**
- Berdintasun-generoan inguruko jarduerak: **20.000 euro**

DAITEKE

Aretxabaletako berdintasun zerbitzua udalak eskaintzen duen zerbitzu bat da. Honen arduradunak, Mainer Aizkorbe (zinegotzia) eta Maria Salsamendi (teknikaria) dira. Azken hau Daiteke gizarte aholkularitzako teknikaria da.

Zerbitzu hau gizarte zerbitzuetan dago kokatua eta bertan ematen da honen berri, ez delako zerbitzua egunero eskaintzen.

Honen helburu nagusia herriko emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna sustatzea delarik. Honetarako udalak duen berdintasun plana da tresna nagusietarako .

2013ra begira dauden lan ildo nagusiak hurrengoak dira (Emakundek bere bosgarren planean duen estrukturaren arabera sailkatuta jasotzen dira jarraian):

MAINSTREAMINGA ETA GOBERNANTZA

1. Ongizate, kirola eta kultura arduradun politiko eta teknikariekin elkarlana genero ikuspegia tokiko eragileekin lantzeko helburuarekin. Udaleko dirulaguntzetan berdintasun irizpideak txertatu.
2. Udaleko arduradun tekniko eta politikoen arteko elkarlanean aurrera pausoak ematen jarraitzeko, udal barruko berdintasun batzordea martxan jartzea
3. Udaleko teknikariekin elkarlana berdintasun teknikariaren laguntzarekin genero ikuspegia txertatzeko prozesuarekin jarraitzeko.(komunikazioa, datu bilketak, plangintzak...

EMAKUMEEN AHALDUNTZEA ETA BALIOAK ALDATZEAREN ARDATZA

1. Martxoak 8 (emakumeen nazioarteko egunaren inguruko programazioa). “Emakumeak kulturari”
2. Emakumeen ahalduntzea sustatze alderako ekintzak, kirol, kultura eta ongizate arloan...
3. Emakumeen txirrindulari bira eta honen inguruko ekintzak.(“Martxoak 8 egunero izan dadila”...)
4. Berdintasun batzordea herritar eta elkarte ezberdinetako kideekin osatzea.

ANTOLAKETA SOZIAL ERANTZUKIDEAREN ARDATZA

1. Jostailu hezkidetzailen inguruko informazio-kanpaina urte bukaeran
2. Hezkuntza baliabideekin elkarlana

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN ARDATZA

1. Indarkeria aurreikusteko gazteei zuzendutako saioak
2. Herriko sarreretan ipiniko diren panelak (Aretxabaletak ez du indarkeria matxistarik onartzen)
3. Azaroak 25 (emakumeen indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna) egunaren inguruan programazioa
4. Arreta eragile guztien arteko elkarlana.

Ekintza hauek urte hasieran 2013rako egiten diren aurreikuspenak dira.

Beste erakunde ezberdinak (Emakundek, Gipuzkoako Foru Aldundiak...) egiten dituzten dirulaguntza deialdien arabera, hauetara aurkeztu eta hauen onespeneraren arabera, beste lan ildo batzuk edo dauden batzuetan jarraitu edo sakontzeko aukera izan dezake Udalak.

3.5.4 Migrazio politika arloa:

- **Etorkinak** gure nazio proiektura ekarri eta euskal subjektu kolektiboaren parte aktibo bilakatzeko bitartekoak landu behar ditugu. Iazko kurtsoan ekindako bidearekin jarraitu behar dugu: ikastaroak, taldea osatu.
- **2013. urtean Harrera plana bat egitea, Protokolo bat egitea izango dugu helburu.**

3.5.5 Nazioarteko elkartasun arloa:

- Krisi garaietan ere, beste herri batzuekin kooperatzeko baliabideak izan behar ditugu eta horretarako iazko diru partida ez dugu jeitsi.
- Hirugarren munduari dirulaguntzak: **30.000 euro**
- **Kooperazioa:** Udal instituzioetatik zuzenean nazioarteko Udal instituzio batzuetara proiektu ekonomikoak bideratzeko gunea. EUSKAL FONDO-ko partaideak diren udalek, proiektuak bertatik bideratuko dituzte.

3.5.6 Ingurumen osasungarri baten aldeko politika, ikus ingurumen arloa

3.6 PUBLIZITATE INSTITUZIONALA ETA KOMUNIKAZIOA

- Instituzioen publizitaterako izan diren **irizpideak berrikusi** behar dira eta horren arabera dirua banatu.
- Urteetan zehar **boikot aktiboaren biktima izan diren komunikabideen errealitateari buelta eman behar diogu.**
- Goienari diru-laguntza ez jeistea erabaki dugu. lazkoa mantentze da.

3.7 KIROLA

3.7.1 Kirol Politikari dagokionez:

- Eskola Kirolaren esparruan; eragile guztion artean hausnarketa sakon bat burutu eta proiektuaren hobekuntza proposamenak jasotzea, zerbitzua biziberritu asmoz.
- Kirol Federatuaren arloan; Aretxabaletako kirol elkarten egiturak sendotu eta lehiaketa kirol guztien arteko sinergiak/bateratzeak sustatzea.
- Emakumeen kirol praktika sustatzea, aisialdi naiz lehiaketa kirolean.

3.7.2 Kirol instalazioei dagokionez:

- Ibarra kiroldegian gauzatzeke gelditu diren lanak eta konponketak burutzea.
- Kiroldegiaren kudeaketaren jarraipena egitea.
- Murubideko pilotalekua konpondu eta birmoldatzeko proiektua
- Ibarra futbol zelairen mantentze/egokitze lanak gauzatzea.
- turrigorriko pilotalekuaren kudeaketa.

45210				
Partida			B. Betiko Aurrek.	Baimendua
1 0201.226.452.10.06 2012		KIROL JARDUERAK, TXAPELKETAK, KIROLA EUSKA	5.000,00 €	1.721,79 €
1 0201.227.452.10.11 2012		MANKOMUNITATEKO KIROLA ZERBITZUA	1.510,16 €	1.510,16 €
1 0201.230.452.10.01 2012		KIROL LANGILEGOAREN DIETA, KILOMETRAJEAK	900,00 €	568,12 €
1 0201.481.452.10.01 2012		KIROL TALDEEI DIRULAGUNTZAK	36.900,00 €	251,47 €
1 0402.211.452.10.01 2012		LOKALEN ETA BOLATOKIAREN KONPONKETAK	200,00 €	0,00 €
1 0402.221.452.10.01 2012		LOKALEN ETA BOLATOKIAREN ARGINDARRA	100,00 €	0,00 €
1 0701.120.452.10.01 2012		FUNTZ.- OINARRIZKO ORDAINKETAK	19.369,59 €	15.184,53 €
1 0701.121.452.10.01 2012		FUNTZ.- DESTINO OSAGARRIA	5.195,52 €	4.762,56 €
1 0701.121.452.10.02 2012		FUNTZ.- BERARIZKO OSAGARRIAK	18.506,82 €	16.606,94 €
1 0701.160.452.10.01 2012		GIZA ASEGURUAK ERAKUNDEAREN KONTURA	10.019,76 €	9.220,83 €
1 0701.160.452.10.04 2012		ELKARKIDETZA ERAKUNDEAREN KONTURA	1.377,74 €	738,07 €
GUZTIZKOAK			99.079,59 €	50.564,47 €

45220				
Partida			B. Betiko Aurrek.	Baimendua
1 0101.622.452.20.01 2009		KIROLETXE BERRIA	41.073,07 €	41.073,07 €
1 0101.622.452.20.01 2011		KIROLETXE BERRIA	2.630.643,29 €	2.630.643,29 €

2013	
Has.ko Aurrek.	
3.000,00 €	-40%
16.500,00 €	993%
750,00 €	-17%
44.900,00 €	22%
150,00 €	-25%
50,00 €	-50%
19.369,59 €	0%
5.195,52 €	0%
18.506,82 €	0%
10.019,76 €	0%
1.377,74 €	0%
119.819,43 €	21%
Has.ko Aurrek.	
0,00 €	-100%
0,00 €	-100%

1 0101.622.452.20.01 2012	KIROLETXE BERRIA.	844.765,63 €	844.765,63 €	90.000,00 €	-89%
1 0201.212.452.20.01 2012	ZAINDUZ-EKO MAKINERIAREN KONPONKETAK	700,00 €	670,05 €	0,00 €	-100%
1 0201.215.452.20.01 2012	SARRERAKO APLIKAZIOAREN MANTENIMENDU	2.000,00 €	2.563,77 €	0,00 €	-100%
1 0201.221.452.20.03 2012	ZAINDUZ-ERAKO GAS NATURALA	2.500,00 €	23.071,19 €	0,00 €	-100%
1 0201.221.452.20.08 2012	ZAINDUZ-ERAKO BOTIKINA	100,00 €	0,00 €	0,00 €	-100%
1 0201.221.452.20.09 2012	ZAINDUZ-ERAKO GARBITASUN PRODUKTUAK	260,00 €	512,89 €	0,00 €	-100%
1 0201.221.452.20.11 2012	ZAINDUZ-ERAKO ERREMINTAK EROSTEA	75,00 €	3,24 €	0,00 €	-100%
1 0201.222.452.20.01 2012	ZAINDUZ-EKO ZERBITZU TELEFONIKOA	900,00 €	1.826,22 €	0,00 €	-100%
1 0201.226.452.20.03 2012	KIROLETXKO PUBLIZITATE-PROPAGANDA	5.721,89 €	5.721,89 €	0,00 €	-100%
1 0201.227.452.20.04 2012	ZAINDUZ-EAN ZERBITZU ESKAINTZA	89.295,58 €	89.295,58 €	0,00 €	-100%
1 0201.625.452.20.99 2011	KIROLETXKO EKIPAMENDUA	89.912,00 €	84.707,94 €	0,00 €	-100%
1 0402.211.452.20.01 2012	ZAINDUZ-EKO KONPONKETA ETA ZAINKETA	625,00 €	472,00 €	0,00 €	-100%
1 0402.221.452.20.01 2012	ZAINDUZ-EKO ARGINDARRA	3.000,00 €	34.964,91 €	0,00 €	-100%
1 0402.227.452.20.01 2012	ZAINDUZ-EKO GARBIKETA	7.612,25 €	13.178,51 €	0,00 €	-100%
GUZTIZKOAK		3.719.183,71 €	3.773.470,18 €	90.000,00 €	-98%
45240					
Partida			B. Betiko Aurrek.	Baimendua	Has.ko Aurrek.
1 0101.622.452.40.01 2012	ITURRIGORRI FRONTOIAREN ADEKUAZIOA	80.000,00 €	75.700,92 €	0,00 €	-100%

1 0101.622.452.40.02 2012		SKATE-PARK	1,00 €	0,00 €	1,00 €	0%
1 0101.622.452.40.01 2013		MURUBIDE FRONTOIAREN ADEKUAZIOA			1,00 €	
1 0201.221.452.40.99 2012		KIROL MATERIALA	250,00 €	0,00 €	250,00 €	0%
1 0402.210.452.40.01 2012		KIROL GUNEEN MANTENIMENDUA	3.000,00 €	163,35 €	3.000,00 €	0%
1 0402.211.452.40.01 2012		FRONTOIEN KONPONKETA ETA ZAINKETA	2.000,00 €	2.403,65 €	2.000,00 €	0%
1 0402.221.452.40.01 2012		ITURRIGORRI FRONTOIRAKO ARGINDARRA	5.000,00 €	3.672,51 €	5.000,00 €	0%
GUZTIZKOAK			90.251,00 €	81.940,43 €	10.252,00 €	-89%
45250						
Partida			B. Betiko Aurrek.	Baimendua	Has.ko Aurrek.	
1 0201.221.452.50.09 2012		FUTBOL ZELAIRAKO GARBITASUN PRODUKTOAK.	150,00 €	75,39 €	150,00 €	0%
1 0201.227.452.50.01 2012		FUTBOL ZELAICO GARBIKETA.	12.794,04 €	11.532,42 €	13.000,00 €	2%
1 0402.211.452.50.01 2012		FUTBOL ZELAICO KONPONKETA ETA ZAINKETA	4.500,00 €	4.729,53 €	6.500,00 €	44%
1 0402.212.452.50.01 2012		FUTBOL ZELAICO MAKINERIAREN ZAINKETA	150,00 €	941,55 €	1.650,00 €	1000%
1 0402.221.452.50.01 2012		FUTBOL ZELAIRAKO ARGINDARRA	10.000,00 €	11.565,71 €	12.500,00 €	25%
1 0402.221.452.50.03 2012		FUTBOL ZELAIRAKO GAS NATURALA	3.000,00 €	2.481,86 €	3.500,00 €	17%
GUZTIZKOAK			30.594,04 €	31.326,46 €	37.300,00 €	22%
GUZTIRA			3.939.108,34 €	3.937.301,54 €	257.371,43 €	-93%

3.8 INGURUMENA

1.- SARRERA. HILDO NAGUSIAK.

Ingurumena guztion ondasuna da. Denok ingurumen garbiago eta osasungarriago batez gozatzeko eskubidea dugu. Datozen belaunaldi berriei zor diegun bizilekua zaindu eta babesteko beharra eta erantzukizuna daukagu.

Aurten ingurumen sailak izango dituen ildo nagusiak hurrengoak izango dira:

- **Ingurumen heziketarako edota ingurumenarekiko sentsibilizazio** ekintzak burutuko ditugu: Eskola agenda21, herritarrei zuzenduriko ekintzak, Udalaren egunerokotasunean barne kanpaina...

- **“Zero Zabor” programa** ezarri eta bultzatzen ari gara. Horretarako, Udalbatzak onartutako gaikako derrigorrezko bilketa pertsonalizatuan oinarritutako sistema bilketan lanegiten ari gara. Honekin bat, bilketa sistema hau osatuko duten beste ekintza batzuk ere bultzatzen jarraituko dugu:

autokonposta, auzokonposta, kaleetan gaikako zakarrontziak ipintzea, etab...

2.- PARTIDAK

Jarraian egongo diren partiden zerrenda aurkezten da:

Partida Kontzeptua 2013

- 0301.226.444.00.05 INGURUGIRO GAIEN SENTSIBILIZAZIOA 3.000€
- 0301.226.444.00.99 TOKIKO AGENDA 21, 1000€
- 0301.227.444.00.07 ESKOLA AGENDA 21, 100 €
- 0301.227.444.00.11 INGURUMENA-GARBIGUNEAK 1 €
- 0301.230.444.00.01 INGURUGIROKO DIETA ETA KILOMETROAK 500 €
- 0301.601.444.00.01 URKULUKO PLANA (mantenimendua) 20.000€
- 0301.227.442.10.99 INGURUMENAREN LAGUNAK 1.000 €

- 0301.226.442.10.05 HONDAKINEN KUDEAKETA : 25.500 euro

GUZTIRA: 85.600 euro

Partidak desglosatuta eta beraien azalpena, hurrengoa litzateke:

Partida Kontzeptua 2013

- 0301.226.444.00.05 **INGURUGIRO GAIEN SENTSIBILIZAZIOA** 3.000

Hiru taldetan banatu genituzke sentsibilizazioa sustatu aldera, burutuko ditugun ekintzak:

1. Otsaila Martxoa aldera, “**Zuhaitz eguna**” ospatuko da. Aurten, sortu berri den “Landaketa Taldeak” ere parte hartuko du antolaketan. Ekainaren 5ean bueltan, Ekainak 5 “Nazioarteko Ingurumen Eguna” dela aprobetxatuz, “**Aste Berdea**” egingo da., argazki rallya, hitzaldiak, dokumentalak, etab..antolatuaz.

“**Urkuluko zabor-bilketa eguna**” Urkulu garbi mantetzeko helburuaz.

Mugikortasun Iraunkorraren astea. Irailaren 16-22 inguruan. “Europako Mugikortasun Iraunkorraren Astea” dela aprobetxatuaz.

“**Tupper kanpaina**” ere abian jarriko da, herriko dendetan erosterakoan era jasangarrian eros dezagun.

Aurten, bestalde, Mankomunitate mailan “**Deba ibaia garbi**” ekintza egingo da, “Depuradora”ko arduradunekin batera. Egun berean, herri guztiak era

koordinatuan, Deba erreka zati bat garbitzeko ekintza antolatuko da Irailean.

2. Herriko Itxura Zainduz (HIZ) / Rehabilitación estética Urbana: gure herriaren itxura zaintzeko sensibilizazioa. Herriaren itxura, bizi kalitatearekin lotuaz.

Kalean dagoen zikinkeria ekiditzeko sensibilizazio kanpaina egingo da. Araua definitzeko aurrerapausuak emango dira.

3. Udaletxean jada ingurumenarekin erlazionatuta dauden arauak betetzeko barne kanpaina eramango da aurrera: erosketa berdea, esate baterako.

Udaletxeak antolatzen dituen ekitaldietan, **jaietan, materiale bererabilgarriak** erabiliko dira. Jada badaude edalontzi, plater, etab...ura edukitzeko pitxarrak erostea aurrakusten da.

Partida Kontzeptua 2013

- 0301.226.444.00.99 **TOKIKO AGENDA 21** 1000 €

Ekintza Planaren Ebaluazioa: udaleko teknikarien informazioa jaso, galdetegia, eta E.P.ren lerro estrategikoak ebaluatzen dira. Ikastaroak, tailerrak, jardunaldiak (lhobek urtean zehar antolatzen dutenak: diru-laguntzak, ohitura onak,, erosketa berdea...)

Urtean zehar lhobek markatutako programa (udalsarea21 webgunea).

Partida Kontzeptua 2013

- 0301.227.444.00.07 **ESKOLA AGENDA 21** 100 €

Eskoriatzako Udalarekin sinatutako hitzarmenaren arabera, Eskoriatzako ingurumen teknikariek koordinatuta antolatuko da Eskola Agenda 21. Aurten **bioaniztasuna** landuko dute ikasleek.

Badaezpada eta gasturik aurreikusten ez den arren, partida zabalik uzten da 100€rekin.

Partida Kontzeptua 2013

- 0301.227.444.00.11 **INGURUMENA-GARBIGUNEAK** 1€

Partida hau zalantzan, Jose Marirekin komentatuta...ZEHAZTEKO.

Partida Kontzeptua 2013

0301.230.444.00.01 **DIETA ETA KILOMETROAK** 500 €

Prestakuntza, tailerrak, etab..erako dietak eta kilometroak jasotzeko partida.

Partida Kontzeptua 2013

0301.601.444.00.01 **URKULUKO PLANA** 20.000€

Aurten Urkuluren Planaren inguruan, urtero egin beharreko mantenimendua (desbrosea..) aurrakusten da, Urkuluko itxura zaindu eta bertan ditugun landare inbaditzaileak urtero era progresiboan kentzen joateko.

Partida Kontzeptua 2013

- 0301. 227.442.10.99 **INGURUMENAREN LAGUNAK** 1000 €

“**Landaketa Taldea**”k, herrian zehar hutsunea eta beharra zegoen tokietan, zuhaitzak landatu ditu, hazitegi bat sortuaz, aurrerago zuhaitz gehiago landatzeko, beti ere Udalaren koordinazio eta elkarlanaz. Zuhaitz eguna eta erreka garbiketan ere parte hartuko dute beste ekintza batzuen artean.

Partida Kontzeptua 2013

- 0301.226.442.10.05 **HONDAKINEN KUDEAKETA** 34.500 €

“Hondakinen kudeaketa” partida orokorra, partida espezifiko ezberdinetan banatzen da:

AUTOKONPOSTA IKASTAROAK 1.000 €

Autokonposta nola egin azaltzeko ikastaroak egingo dira. Ikastaro hauek, auzokonposta egiten duen herritarrentzat ere balioko dute.

GAIKAKO ZAKARRONTZI AK 20.000 €

Gaur egun, kalean ditugun zakarrontziak zabor guztia nahastuta jasotzekoak dira eta aurrepausu bat eman eta gaikako zakarrontziegatik ordezkaturako dira.

AUZOKONPOSTA 4.500 €

Txarapean egingo da lehen auzokonposta gunea.

SENSIBILIZAZIOA – PARTE HARTZEA , beste partida bateb baitan dago: **Herrigintza, parte artesa 25.000 euro eta herrigintza: komunikazioa, kartelak, pankartak..3000 eurokoa**

Hondakinen kudeaketaren inguruan egingo diren informazio, sensibilizazio kanpaina, parte-hartze, hitzaldi, etab....(Ideien zaparrada, etab..)

3.9 HIRIGINTZA

Hirigitzako aurrekontuari dagokionez, 2013rako **helburu nagusiak honakoak** dira:

- Plan Generalari bultzada bat eman, legealdi bukaera aldera onartu ahal izateko bidean izan dadin. Mahai gainean dauzkagun Plan Generalaren Aurrerakina eta Mugikortasun Plana berrikusi eat herritarrei jakineraztera eman ondoren hauen proposamenean oinarritu daiteke, gune estrategikoetako masterplanak egin ausnarketarako eta debaterako baliabide izan daitezen.
- Herrriko hainbat gunetako azpiegituren urgentziazko mantenimendua egin (errepideak, espaloiak, etabar) eta datozen urteetarako mantenimenduaren plan plurianuala prestatu, dagozkion inbersioka blokeatzeko.
- Pendiente dauden hainbat urbanizaio proiektu gauzatu.

Ilido nagusi hoiek atxikitako dokumentuan aipatzen diren proiektuetan gauzatzen dira. Proiektuak priorizatuta daude eta, beraz, lehentasun gutxienekoak beste urte baterako utzi litezke aurten inbertsio ahalmen nahikoa izango ez bagenu.

Saileko ahulezien inguruan, urte hasieran sufritutako giza baliabideen murrizketa aipatuko nuke. Honek, alabeharrez, eragina izango du jardunean. Orain arte hiru pertsona izanik hainbat lan aurrera atera ezinik bazelbiltzan, aurrerantzean lehentasunak finkatu beharko ditugu, saileko lan eta betebeharrak lehenetsiz. Ikus eranskina: proiektuak eta partidak.

PROPOSATZEN DIREN INBERSIOAK HONAKO HAUEK DIRA: aurrekontuen 15. orrialdean

1. KIROLDEKIGO KONPONKETA.....	90.000
2. OROKO BIDEA	151.000
3. MURUBIDEKO FRONTOIA ETA INGURUAK.....	130.441,69
4. BELORRIETA, ERREKA BAZTERREKO ESPALOA.....	60.000

3.10 HAUR, NERABE ETA GAZTEEN SUSTAPEN ZERBITZUA

Aretxabaletako haur, nerabe eta gazteen sustapen zerbitzua, Gaztematikan kokatzen da.

Gaztematika gipuzkoako udalek, Foru Aldundiak eta gizarte eragileek landutako marku bat da (aisialdi talde, gazte elkarte, unibertsitate...), Gaztematikak gure lanaren misioa definitzeko, zerbitzuaren helburuak konpartitzeko eta lan egiteko moduak partekatzeko balio digu, gipuzkoako udalei, Foru Aldundiari eta haur, nerabe eta gazteekin aritzen diren enpresei eta eragileei. Gure lanaren abiapuntua, norabidea eta helmuga konpartitzeko eta etengabe egokitzeko balio du, alegia.

Horiek horrela, eta gainontzeko herrietan bezala, Aretxabaletako haur, nerabe eta gazteen sustapen zerbitzuak 2 erronka nagusi ditu:

1. Hezkuntza ez formalaren bitartez, haur, nerabe, eta gazteak norbere autonomiarako gaitu
2. Hurrek, nerabeek eta gazteek haurtzaroa eta gaztaroa, gozatu, esperimentatu eta heldutasunaren bidean oinarri diren aldi hauek, beren osotasunean bizi ditzaten laguntzea.

Beste modu batean esanda: **babeserako eta prebentziorako gizarte politikako lanez gain, aro hauek gozatzeko egiten dugu lan: haurrak, nerabeak eta gazteak gaitu egin nahi ditugu eta laguntza eman autonomoak, askeak eta gizartean inplikatuak izan daitezten.**

Horrek esan nahi du Aretxabaletako haur eta gazte guztiei gaikuntza, laguntza eta baliabideak eman behar zaizkiela zerbitzu publikoen bitartez. Zerbitzu horietan azaldutako helburuak lortzeko, 6 lan ildo lantzen dira, aro bakoitzari eta pertsona bakoitzari egokituta alegia: informazioa, orientabidea, bide-laguntza, aisia hezitzailea, partaidetzarako bideak eta kultura-sorkuntzarako eta -produkziorako bideak. Hauekin beraz, haurren eta gazteen egungo eta etorkizuneko bizi-baldintzetan, bai eta nor bere autonomia lortzeko ibilbidean arrakastaz aurrera egiteko behar dituzten oinarrizko gaitasunen garapenean eragin nahi dugu.

Horiek esanda, eta helburua definituta hona hemen 2013rako Aretxabaletako udaleko aurrekontu proposamena:

HELBURU ESTRATEGIKOA: Haurren sustapena bultzatu

Haurren sustapenaz ari garenean batetik hezkuntza ez formalaren bitartez, balore positiboak landuz, euren autonomia bultzatzeko lan egin nahi dugu. Horretaz gain, bizitzako etapa honetaz gozatzeko baliabideak eman nahi ditugu, esperimentatzeko, eta etorkizunean pertsona inplikatuak izan daitezen oinarriak lantzeko.

HELBURU OPERATIBOA	EKINTZA	AURREKONTUA AURREIKUSITAKO ERREALA	
Haurrei zuzendutako aisialdi eskaintza euskaldun parte hartzaile eta herritarra bultzatu urte guztian zehar	Ludoteka zerbitzua	30.550,00	
	Aisialdi ekintzak (Bilboko PINera irteera eta izotz pista)	1.000,00	
	Udaleku irekiak	15.500,00	
	Gabonetako eskaintza	3.000,00	
	Kuku-Miku elkarteari diru laguntza	2.000	

HELBURU ESTRATEGIKOA: Nerabeen sustapena landu

Nerabeei dagokionez, berdina landu nahi dugu: hezkuntza ez formalaren bitartez, balore positiboak landuz, euren autonomia bultzatu etorkizuneko helduarora arrakastaz iritsi daitezen. Horretaz gain, bizitzako etapa honetaz gozatzeko baliabideak eman nahi ditugu, esperimentatzeko, eta pertsona inplikatuak izan daitezen oinarriak lantzeko.

HELBURU OPERATIBOA	EKINTZA	AURREKONTUA GASTUA	ERREALA
Nerabeei zuzendutako aisialdi eskaintza euskaldun, parte hartzaile, sortzaile, herritar eta prebentiboa izatea	Gazteleku zerbitzua	52.275,00	
	udaero zerbitzua	0	
	Gau alternatiboak: Alkoholik gabeko dantzaldia eta Gaba beltza	3.000,00	

HELBURU ESTRATEGIKOA: Gazteen sustapena landu

Gazteen artean ere, helburu berdinak ditugu. Batetik udalak gaztaroak etapa gisa gozatzeko baliabideak eskaini behar dituela uste dugu, beti ere, helduarorako ibilbidean eragin positiboak izan ditzaten. Horretaz gain, gazteak protagonista izan daitezen bultzatu behar du, gazteen parte hartzea sustatu behar du, azken finean, heldutasunean ere herriko bizitzan, subjeto parte hartzaileak izan daitezen.

HELBURU OPERATIBOA	EKINTZA	AURREKONTUA GASTUA	ERREALA
Gazteen sormena eta parte hartzea sustatu	Gazteen sormena erakusteko egitasmo bat martxan jarri	3.400	
	Kuartelaren egokitzapena entsegu lokaletarako eta arte adierazpenetarako definitu prozesu parte hartzaile baten bitartez	?	

3.11 ONGIZATEA: Gizarte Zerbitzuak

3.11.1 Helburu orokorrak

Herritarren bizi kalitatea hobetzea, dauden baliabideak gestionatu eta sustatuz, eta arrisku-egoeretara eta marjinaziora bultzatzen duten arazoei aurre hartuz.

3.11.2 Zerbitzuak

3.11.2.1 Informazio, balorazio eta orientazio programa:

Atal honen zeregina da arazoak edo kezkak aztertzea, baloratzea eta diagnostikoa egin ondoren, baliabiderik egokiena bideratzea. Horretarako dauzkagun errekurtsoak dira: **laguntza ekonomikoak, mendekotasun balorazioa, ezgaitasun azterketa, laguntza teknikoak, laguntza psikologikoak, juridikoak eta abar.**

Jarraipena eta balorazioa egin ondoren, beharra ikusiz gero, baliabide berriak edo errekurtsio ezberdinak sustatuko dira edo kasua beste zerbitzu espezializatuagoetara bideratuko da.

3.11.2.2 Familia eta aholkularitza programa:

Helburua: adinean aurrera doazenei eta osasun arazoak edo ezgaitasuna duten pertsoneri laguntzea, etxean bizitzen jarraitu dezaten eta bizi kalitatea mantendu dezaten: **etxeko laguntza zerbitzua, eguneko zentroa, eta aldi baterako egoitzak.**

Etxean egoteko moduan ez daudenak, **zaharren egoitzetara** bideratuko dira.

Familia Esku-hartze programa: adin txikikoak dituzten familietan arazoak somatzen direnean (eskolako faltak, jarrera arazoak...), psikologo edo/eta hezitzaile baten laguntza eskaintzen da.

3.11.2.3 Prebentzio eta gizarteratze programa: Myrian teknikaria.

Drogamenpekotasunen prebentziorako zerbitzua: (Eskola, familia eta jai eremuan 7.000 €)

- **Prebentzioa eskolan** – Eskolan drogen menpekotasunei aurrea hartzeko, ikasle eta irakasleei eskaintzen zaien informazioa, formazioa, aholkularitza eta baliabideak dira. Helburua drogak hartzen hasteko adina atzeratzea eta 18 urtetik beherakoan artean kontsumoa murriztea da. Horretarako, batez ere, babes faktoreak hartzen dira kontuan: *tabakoari buruzko proiektua LHko 6. mailan, drogamenpekotasun prebentzioa DBHko 1/3. mailan, Peter Robertsen “Mimarte” antzezlanaren ...*
- **Prebentzioa familian** – Familiari eskaintzen zaion informazio eta formazioa da, familiak berak drogamenpekotasunei aurrea hartzeko. Horretarako, seme-alaben heziketarekin zerikusia duten gaiak jorratzen dira, drogen erabilerena barne: *gurasoendako hitzaldiak, tailerrak eta “Canabisa kontsumitzeagatik zigorren ordezkotako neurriak” (Kurtzebarri BHI eta Batera Guraso Elkartearekin batera jorratutako protokoloa).*
- **Jai-eremuko prebentzioa** – Arrisku kontsumoak eta jai goroan ematen den droga kontsumoari lotutako arriskuen murrizketa da: *alkoholemia kontrolak jaietan.*

- **Drogen inguruko arazoei aurre egiteko orientazioa, aholkularitza eta diru laguntzak** – Drogen inguruko informazio, orientazio eta aholkularitza pertsonalizatua eskaintzen duen gunea da. Bertan, egoera aztertzeke eta baloratzeko laguntza eskaintzeaz gain, esku-hartzerako edo tratamendurako egon daitezkeen aukera eta baliabideen inguruko azalpenak ere ematen dira: *tratamenduetarako diru laguntzak*. **3.000 €**
- **Ingurune eremuan prebentzioa, kale hezitzaileak** – Adingabeak eta zailtasunak dituzten gazteak egoten diren gune komunitariotan abian jarritako programa bat da, droga kontsumoaren aurrean, hezkuntza prozesuaren bitartez beraien babes faktoreak indartzeko. Horren guztiaren helburua da drogak hartzen hasteko adina atzeratzea, adingabeen artean kontsumoa murriztea eta erabilera arazotsuak saihestea: *Ingurune Irekiko Programa*. **28.500 €**

Gizarteratze zerbitzua (SARTU gizarteratze enpresa, astean behin): 10.000 euro

Bazterkeria egoeretan edo arriskuan daudenei bideratutako laguntza pertsonala, formazio irtenbideak, lan ibilbideak ...

Elkarbizitza programa - elkarbizitzarako oinarriak eta ildo nagusiak ezartzeko prozesua.

- **Gizarteratze Zerbitzua** 2001eko abenduan jarri zen martxan Aretxabaletako herrian, oinarrizko Gizarte Zerbitzuei gizarteratze-zereginetan laguntzeko.
- Gaur egun **Gizarteratze Teknikaria Joana de la Calle** daukagu. **Ostegunero** zerbitzua eskaintzen du **goizeko 8:00etatik 14:45ak arte**.
- Zerbitzuaren betebeharrak nagusia **garapen komunitarioan** laguntzea da. Horretarako, pertsonen gizarteratzea errazten, inguruko baliabideen erabilera sustatzen eta agente ezberdinekin sare-lana bultzatzen ahalegintzen da.
- Gizarteratze Zerbitzuaren eginbeharrak, besteak beste, **orientazioa, akonpanamendua, jarraipena, formakuntza** eta zonaldeko zein Euskal Herri mailako **hainbat baliabideekin koordinatzea** dira.
- **Zerbitzua eskaintzeko, udalak, SARTU federazioko ZABALTZEN elkartearekin hitzarmena sinatuta dauka.**

SARTU federazioak 1988. urtetik dihardu Gizarte Zerbitzuen arloan. SARTU osatzen duten elkarte ezberdinen helburu nagusia

bazterketa sozialaren kontrako borrokan oinarritzen da. Pertsonen gizarteratzea erraztea eta bai pertsonen bai komunitate integratzaileak sustatzea du helburu.

Berdintasun zerbitzua (Daiteke Aholkularitza enpresa, hamabostean behin): Genero ikuspegitik herriaren diagnostikoa eta berdintasun plana egin, sentsibilizazioa eragin, ekintzak antolatu, aholkularitza zerbitzua eskaini (sexu arazoetarako protokoloa eta abar)...

Basotxo Jubilatuen Elkartea: Diru laguntzak, mantenimendua, jubilatuen omenaldia, elkarlanarekin jarraitu.

3.11.2.4 Giza lankidetzak eta borondatezkoen programa: Gobernu kanpoko erakundeei diru laguntza. Gizarte arloan lana egiten duten elkarteei diru laguntzak

3.12 HEZKUNTZA

- Hezkuntza Mahaia martxan jarri, sinergiak bilatu eta herrira begira elkarrekin ekintzak koordinatzeko.
- Euskal Curriculuma bultzatu eta estatuetatik datozen inposaketan eta erasoan aurrean erantzun bateratua bilatu.
- Euskararen transmisioan hezkuntzak duen garrantzia kontuan hartuz, bide horretan sinergiak bilatu.
- HUHEZI unibertsitatearen etorrerak Aretxabaletari aportatu ahal diona kontuan hartuz, elkarlana sustatu.
- ALEekin dugun elkarlanarekin jarraitu.

KUDEAKETARAKO KONTUTAN IZATEKOAK

Udalaren egoera ekonomikoa

- Instituzioaren (Udala edo Foru Instituzioak) kontu ekonomikoen eta aurreko urteko aurrekontuaren berri zehatza izatea ezinbestekoa da.
- Aurrekontua ondo lantzeko, sarreren aurreikuspen zorrotza eta zehatza egin dugu. Bereziki ordenantza fiskalak eta Udalen finantziatorako Foru Fondoetatik datorrena zein izango den ondo aurreikusi dugu.
- Bizi dugun egoera (krisi, gehi gure maileguak) hauetan, ondasun publikoen salmenta –zainduz, durana kaleko txe-bizitza, garagea-zoritxarrez saldu beharra dauzkagu.
- **600.000 euro** sarreretan sartu izan ditugu; kantita hori, Zainduz, Durana kaleko etxe-bizitza eta garaje baten salmentari dagokio.

- Gure zorrak:

Préstamo Kutxa.....	7.439.089,93 €
Préstamo Caja Rural Navarra.....	228.800,00 €
FFFM 2009	302.552,20 €

TOTALA 7.970.442,13 €.

- Bizi dugun egoera dela medio, udalak ematen dituen dirulaguntzak berrikusi ditugu. Urteetan zehar mekanikoki, inolako eztabaida eta jarraipenik egiten ez zaien dirulaguntza horiek berraztertu ditugu, Helburua ez da murriztea, kontu ekonomikoekin zorrotasunez jardutea baizik. Argi izan behar duguna da, dirulaguntzak jasotzen dituzten talde eta eragileek herrira begira ekarpena egitea funtsezko irizpidea dela.

- Udalak dituen hainbat hornikuntza, mantenu,... kontratu berrikusi eta bakoitzaren egoera zein den ikusita, hauek bernegoziatu genituen.-garbitu eta lorategien zaintza-.Hau dela eta diru dexente aurreztu dugu.
- **Eragozpen ekonomikoen aurrean, auzolana.** Atera nahi ditugun proiektu denak auzolanean ezin ahalko direla egin jakin baldin ba dakigu ere, filosofia eta lan estilo hau zabaltzea funtsezkoa da. Beste eredu baten zutabeetako bat izan daiteke auzolana.
- **Helburua ez da izango kontuak saneatzea. Krisiari aurre egin, beste modu batez gauzak egin daitezkeela agerian utzi ETA noski, bankuei ahalik eta dirurik gutxiena ematean datza guk proposatzen dugun bidea.**

Gastua

- Aurrekontuak egiterakoan, bizi dugun krisi egoera, kontuan izan beharreko elementua da. Krisi egoera honek udalen sarrerak murriztuko ditu orobat, eta gastuak murrizteko joera nagusituko da.
- Hala ere, gehien behar duten herritarrek oinarrizko bizi baldintzak izatea bermatu behar dugu. Gastu soziala mantentzen saiatu gara. Oinarri soziala duten, obra, laguntza eta ekimen-programak mantentzearen aldeko jarrera tinkoa adierazten dugu eta horrela isladatzen da 2013ko aurrekontuetan.. Langabetuak, emakumeak, gazte eta etorkinek, berez dagozkien eskubideak bermatuta izateko egin behar dugu borroka. Gastu soziala ez da Gizartekintza arlotik doana soilik. Auzolanaren bidetik, edo etxebizitza politika desberdin baten bidez edo beste hainbat ataletatik eraldaketaren eta gutxien dutenen alde egindako lana ere gastu soziala da.

Pertsonal politika

- Lehen kapituluan, orain artean sindikatuekin hartutako konpromisoak betetzen jarraitzeko saiakera tinkoa egingo dugu. Hala ere, Madriletik datozen erabakiek erabat oztokatzen dituzte gure nahiak.
- **2013ko aurrekontuan, ez dugu soldaten igoerarik aurreikusten eta 14.paga fondo baten baztertuko dugu.**
- Bide hau guztia, langileekin eta langileen ordezkaritza sindikalaren batera egingo dugu.

Ondorio politikoak

Bai forma zein edukiz, minimo hauek bete eta bete araztea da gure helburua:

Aurrekontuaren lanketa prozesu guztian zehar emaniko pausu guztiak herritarren babesarekin eta komunikazio plangintza egoki batekin ematea ezinbestekoa dela uste dugu eta gu hortxe gabitz, ikasten.

Aurrekontuak forma arloan herriarekin bat eginik eta partehartzea landuz burutu gura izan dugu. Edukiari dagokionean berriz, gaur egunean lehentasunekoak diren nazio eraikuntza eta eraldaketa sozialaren arloetan sakontzen saiatu izan gara, beti be Udalaren egoera ekonimoak zenbateraino balditzatzen gaituen ahastu gabe.